

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO
TOKIKO EKINTZETARAKO DEALDIA, 2017ko UZTAILAREN 27koa

(2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA)

TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA

ZIOEN AZALPENA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak aberastasun ekonomikoa eta soziala sustatzen ditu Txorierrri eskualdea osatzen duten sei udalerrietan: Derion, Larrabetzun, Lezaman, Loiun, Sondikan eta Zamudion. Horrela, inbertsioa eta erakunde eta saltokien sorrera eta hazkundera indartzen ditu eskualdean, bai eta lana lortzeko aukerak hobetu ere. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak enplegua eta ekonomia sustatzeko sail bat du (EGAZ Txorierrri); honako helburu hauek ditu:

- Txorierrri eskualdearen garapen ekonomikoa eta modernizazioan eragingo duten jarduerak sustatzea, betiere Enpleguaren Euskal Estrategia 2020rekin bat etorritz.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-aukera sustatzea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabeen enplegarritasuna hobetzea.
- Lankidetzak eta aliantza-sareak ezartzea eskualdeko garapen sozioekonomiko eta sozialean esku hartzen duten eragileekin.
- Garatzeko eta aukerak zabaltzeko gune berriak sustatzea ekintzaileentzat.

a) Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2017ko uztailaren 27an emandako ebazpenaren bidez (uztailaren 28ko EHAA, 143. zk.), enplegua sustatzeko tokiko jardueretarako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Deialdiaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea, jardueraren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa bultzatzera eta modernizatzen bideratutako enplegua sortzeko proiektuak martxan jar daitezzen, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020rekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioarekin bat etorritz.

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren ebazpenean "Kontratatzarako laguntzak – 2. motakoak" jasotzen dira, eta helburu hau dute: "diru-laguntza ematea, tokiko erakundeek merkatu arruntean kontrata ditzaten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabeak".

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak parte hartu du deialdi horretan, eta 30.000,00 euroko diru-laguntza jaso du.

1. DIRU-LAGUNTZEN HELBURUA

Laguntza hauen helburua da laguntza ekonomikoa ematea langabezia edo Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden pertsonak kontratatu ahal izateko (merkatu arruntean eta tokiko enpresen bidez). Horretarako, tokiko erakundeek eta horien mendeko erakundeek zenbait jarduketa abiarazi eta gauzatu beharko dituzte langabeak kontratatzeke (batez ere Txorierri eskualdean bizi direnak).

2. APLIKA DAITEKEEN LEGERIA

Oinarri hauek ezartzeko eta interpretatzeko, aintzat hartu behar da esparru arautzailea, honako arau hauetatik sortzen dena:

- a) 2017ko uztailaren 27ko ebazpena, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2017ko ekitaldiko laguntzen deialdiari dagokiona (2017ko uztailaren 28ko EHAA).
- b) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE).
- c) 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia onesten duena (uztailaren 25eko BOE).

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak izango du oinarri hauek eta horietatik eratorritako dokumentu guztiak interpretatzeko eskumena, bai eta hori betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzekoa ere.

3. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Atal honetan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte 2017ko uztailaren 27ko ebazpenaren bidez argitaraturiko deialdiaren 6.2 artikuluan jasotzen diren "Kontrataziorako laguntzak – 2. motakoak" jaso nahi dituzten erakundeek.

- Legez eratuta egotea eta egoitza soziala edo lantokia Txorierri eskualdeko udalerrietako edozeinetan edukitzea (Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio).
- Txorierri eskualdea osatzen duten udalerrietako batean dagoen (Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio) lantoki baterako kontratazio berria egitea, oinarri hauen 4. atalean jasotako baldintzei jarraikiz.
- Ez egotea zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin, eta ez egotea horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearekin (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) bat etorritz.
- Erakunde bakoitzak gehienez ere 2 eskaera aurkez ditzake oinarri hauetan zehaztutako kontratazio-laguntzarako.

Onuradunek oinarri hauek arautzen duten laguntza-programan parte hartzen duten aldi osoan bete behar dituzte baldintza horiek.

4. KONTRATATZEKO BALDINTZAK

a) Kontratazioen ezaugarriak

Erakunde kontratatzaileak agiri bidez egiaztatu behar ditu honako baldintza hauek, diru-laguntza justifikatzeko:

- Kontratazioak kontraturiko pertsona berria lanean hasi baino 3 hilabete lehenago zeuden langileen batezbesteko osora iristeko adinako enplegu garbia sortzea ekarri beharko du.
- Kontratazioak gutxienez 6 hilabetekoak izango dira, eta edozein kontratazio-modalitatekoak izan daitezke (prestakuntzarako eta ikasteko kontratuak izan ezik).
- Kontratuak lanaldi osokoak izango dira (lanaldiaren % 100).
- Laguntzaren azken zenbatekoak ezin du gainditu pertsona kontratatuen kontratu-amaierako ordainsarien eta Gizarte Segurantzaren kostuen % 75.
- Kontratuak 2017ko uztailaren 28tik 2017ko abenduaren 30era bitartean hasi ahal izango dira (bi egunak barne).

b) Kontraturiko pertsonen betebeharrak

Kontraturiko pertsonek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Langabeak izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Langabeak izatea eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Bereztan alta eman gabe egotea kontratazioa hasi baino lehenago.
- Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea; ahal dela, Txorierri eskualdea osatzen duten sei udalerrietako batean (Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio).
- Ez zaie diru-laguntzarik emango enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-organoetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duten ezkontideen, oinordekoen eta gainerako senideen kontratazioei.

5. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 5 laguntza ditu deialdi honetarako. Eskabideak eta egiaztagiriak aurkezten dituzten erakundeei emango zaizkie, betiere oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.
- Diru-laguntza bakoitza 6.000,00 eurokoa izango da kontrataturiko pertsona bakoitzeko.
- Guztira, kontrataturikoen % 40k, gutxienez, emakumezkoak izan beharko dute.
- Bukaeran, ehuneko hori erdietsiko ez balitz, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa murriztu egingo da, emandako zenbatekoa ehuneko hori erdietsi arte egokitzeke.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Laguntzen eskabideak eta eskatzen diren egiaztagiriak oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2017ko abenduaren 30era bitartean.

a) Lekua eta ordua:

Eskabideak eta dagokion dokumentazioa bi modalitatearen bidez aurkeztuko dira:

- Helbide elektronikoaren bidez: egaz@txorierri.eu
- Behargintza Txorierri SLn (helbidea: Txorierri etorbidea 46, 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

Eskabidea ez da behar bezala aurkeztutzat joko, egon daitezkeen hutsuneak zuzendu arte.

b) Aurkeztu beharreko agiriak:

“Txorierri-Erandio Eskualdeko Plana. Kontratatziorako Laguntza Programa” agiriaren amaieran daude jasota eranskinak (agiri hori webgune honetan dago: www.txorierri.eu).

Erakunde interesdunek oinarri hauetako I. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz egin behar dute eskaera.

Horrez gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Parte hartzeko eskabidea, beteta (I. eranskina).
- Enplegu garbia sortzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren eredua, beteta (II. eranskina).

7. EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

Aurretiaz oinarri hauetan adierazten diren Kontrataziorako Laguntzen 2017ko deialdiko laguntza-eskaera egin duten eta ondorengo kontratazioa egin duten erakundeek, beharrezko baldintza guztiak bete badituzte eta onartuak izan badira, kontratazio horiek benetakoak direla frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, kontratazioa hasi zen unetik sei hilabeteko epean. Egiaztagiria aurkezteko azken eguna 2018ko uztailaren 31 izango da, betiere oinarri hauetan adierazitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

a) Lekua eta ordua:

Kontratazioen egiaztagiria bi modalitate bidez aurkeztuko dira:

- Helbide elektronikoaren bidez: egaz@txorierri.eu
- Behargintza Txorierri SLn (helbidea: Txorierri etorbidea 46, 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

Egiaztagiria ez dira behar bezala aurkeztuzat joko egon daitezkeen hutsak zuzendu arte.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Erakunde interesdunek oinarri hauetako IV. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz justifikatu behar dute kontratazioa. Era berean, dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

- Egiaztagiria aurkezteko eredu (III. eranskina), behar bezala beteta.
- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia.
- Nominak, kotizazioen likidazio-agiria (garai bateko TC1) eta langileen izen-zerrenda (garai bateko TC2), jasotako laguntza justifikatzeko.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDNk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDNk emandakoa.
- Ahaidetasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren eredu (IV. eranskina), beteta.
- Diru-laguntzaren helburu den kontrataziorako gehiegizko finantzaketarik ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredu (V. eranskina), beteta.
- Egindako kontratazioaren eta kontratazio-gastuaren erantzukizunpeko adierazpenaren eredu (VI. eranskina), beteta.
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VII. eranskina).
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

8. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ebatziko ditu eskaerak.
- Eskaerak lehia askean hautatuko dira.
- Eskaerei buruzko ebazpenak emateko gehieneko epea 15 egun baliodunekoa izango da, eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera zenbatzen hasita. Diru-laguntzen eskaerak gaitzetsizat joko dira epe horretarako ebazpenik eman ez bada. Edonola ere, administrazioak eskaerei buruzko berariazko ebazpenak eman beharko ditu.
- Laguntza funtsen banaketaren bidez emango da, justifikazioen erregistroaren hurrenkerari jarraikiz; baldin eta deialdi honetan ezarritako eskakizunak betetzen badira, eta aurrekontu-kreditua agortu arte. Kontuan hartuko da laguntza horren bidez kontrataturikoen % 40k, gutxienez, emakumeak izan behar dutela.
- Eskaera ez da onartuko deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira.
- Eskaera gaitzetsi egingo da dagokion partidako kreditua amaitzen denean.
- Kontrataturiko pertsonak diru-laguntzaren aldia bete baino lehenago amaitzen badu lan-harremana, haren ordezkioak haren baldintza berberak bete beharko ditu, lanaldiari, kontratu-motari, lanpostuari eta kategoria profesionalari dagozkionak barne.

9. LAGUNTZA ORDAINTZEAK

Oro har, diru-laguntza ordainketa bakarrean emango da (6.000 euro) eskaera bakoitzeko, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Egiaztagirak oso-osorik eta behar bezala beteta aurkezten direnean eta eskatu diren gainerako dokumentuak aurkezten direnean, oinarri hauetan adierazi diren betebeharrei eta baldintzei jarraituz.
- Laguntza horien bitartez kontratatzen diren pertsonen % 40 emakumezkoak direla egiaztatzean.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak erabaki ahalko du ordainketak atal honetan jasota ez dagoen beste modu batean egitea, uste badu, gertatu diren gorabeherak direla eta, sistema berriak laguntza hauen kudeaketa errazten duela.

Ordainketak egiteko, lehenbizi Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako funtsak jaso beharko ditu, eta hori laguntza hauek biltzen dituen 2017ko Txorierri-Erandio Eskualdeko Planean jasotako ekintzak amaitzen diren egunetik (2018ko ekainaren 30a) hasi eta hiru hilabeteko epean egingo da gehienez ere.

Nolanahi ere den, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari proiektuaren justifikazio orokorra aurkeztu eta hark erabakitzen badu laguntzaren zenbatekoa itzuli egin behar dela, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak diruz lagundutako erakundeari eskatu ahalko dio itzuli beharreko zenbatekoa, betiere erakunde horrek ez baditu dagozkion baldintzak bete.

10. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Oinarri hauetan eskatutako baldintza guztiak betetzea.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari, bere Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), laguntza honen kargura jasotako diru-laguntzen harira gauzatzen dituen fiskalizazio-lanetan behar izan dezakeen informazioa ematea.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari, bere Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), enpresak eskuratu izan ditzakeen beste laguntza batzuen berri ematea, baldin eta oinarri hauetan zehaztutako kontzeptu berdinengatik eskuratu badira. Laguntzak bateragarriak izan badaitezke ere, enpresak jaso dituen gainerako diru-laguntzen bidez ordaindu ez diren gastuak bakarrik ordainduko dira diru-laguntza honekin.
- Unean-unean jakinaraztea, Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearekin adostutako baldintzak aldatu direla edo kontratatu ondoren arazoren bat dagoela.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari laguntzea, bere Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), 2017ko Txorierri-Erandio Eskualdeko Enplegu Planaren kudeaketa dela-eta eska dakizkiokeen betebeharrak guztiak (hasieratik ezarritakoak nahiz gero sortutakoak) betetzen. Betebeharrak horiek Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren barnean, diru-laguntza emango zaiola ezartzen duen Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenean jasota daude. Ebazpena Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onetsi zen, 2017ko uztailaren 27an, eta 2017ko uztailaren 28ko EHAAn argitaratu zen.
- Horrez gain, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, bere Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuaren bitartez (EGAZ Txorierri), diruz lagundutako proiektuaren harira egokitzat jotzen dituen ikuskapen guztiak egin ahal izango ditu.

11. BALDINTZAK EZ BETETZEA ETA LAGUNTZA ITZULTZEA

- Laguntza emateko baldintzetako bat betetzen ez bada, onuradunek betebeharren bat betetzen ez badute, edo emandako datuak edo aurkezturiko erantzukizunpeko adierazpenak faltsutzen badira, laguntza-programatik bazter utziko dira, eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.
- Diru-laguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak ez badu diru-laguntzaren bat justifikatu justifikazio-aldia amaitzerako. Halaber, ez da diru-laguntza ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak ez badu diru-laguntzaren bat itzuli hala eskatu zaionean.
- Behargintza Txorierri SLk ebazpen bidez adieraziko du baldintzaren bat ez dela bete, enpresa bazter utzi dela, diru-laguntza itzuli behar duela eta laguntzak jasotzeko eskubidea galdu duela. Ebazpena eman aurretik, zerbitzu teknikoek horren inguruko txostena emango dute.

12. AURREKONTU-ESLEIPENA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak gehienez ere 30.000,00 euro emango ditu oinarri hauetako kontratazio-laguntzetarako; zenbateko hori 5 kontrataziori dagokie.

13. PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA

Oinarri hauek aplikatuko zaizkie Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera eta 2017ko abenduaren 30era bitartean aurkezten diren eskaera guztiei. Hauen bidez, 2017ko ekainaren 20tik 2017ko abenduaren 30era bitarteko hasiera-data duten kontratuak arautuko dira.

14. LAGUNTZEN GEHIENEOKO ZENBATEKOA

Oro har, gehienez ere 12.000,00 euro emango dira oinarri hauetan adierazitako kontratazio-laguntza gisa.

Diru-laguntzak emateko, Minimis Laguntzen Tratatuaren 87. eta 88. artikulua ezartzeari buruzko 2006ko abenduaren 15eko (379. EBAO, 2006-12-28koa) Batzordearen 1998/2006 Araudiari (EB) edo haren ordezkari legeriari jarraituko zaio. Gaur egun, enpresa bati gehienez ere 200.000 euroko diru-laguntza emango zaio 3 zerga-ekitaldiko edozein alditan (100.000 euro, errepideko garraioaren sektorean jarduten duten enpresentzat). Laguntza-neurri baten arabera emandako laguntzaren zenbateko osoak gehieneko muga hori gainditzen badu, laguntza hori ezingo da erabili ezta gehieneko muga hori gainditzen duen zatiki baterako ere.

Oinarri hauei heltzen dieten enpresen diruz lagun daitezkeen proiektuek ezin izango dute bestelako laguntzarik jaso, haien izaera eta horiek ematen dituen organoa edo administrazioa edozein direla ere, oinarri hauetatik ateratakoekin metatzean Erkidegoko araudian laguntzak metatzeari buruz ezarritako mugak gainditzen badituzte. Halaber, ezingo dute inola ere gainditu proiektuaren kostua edo horiek lagundutako gastua. Bestalde, emandako laguntzetatik zuzenean kendu beharko dira diruz lagundutako kontzeptuei dagokienez helburu bera duten organoek edo administrazioek emandakoak, adierazitako mugak gainditzen badira.

15. ERREKURTSOAK

Emakida-ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta horren aurka berrezartzeko errekurtsua aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

16. DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazten du oinarri hauek izapidetzean sortzen den dokumentazioan adierazten diren datu pertsonalak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla.

Nolanahi ere, interesdunak horren berri izan du, eta ados dago bai bere datuak aipatutako helbururako erabiltzearekin bai aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza-erakundeei lagatzearekin, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekotza egiteko eta lan-merkatuaren azterketak eta analisiak gauzatzeko.

17. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK ARGITARATZEA

Txorierriko Zerbitzuen mankomunitateak bere webgune ofizialean (Txorierri.eus) argitaratuko ditu emandako diru-laguntzak.

Derion, 2017ko azaroaren 23an.

IGOTZ LÓPEZ TORRE jn.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko burua

I. Eranskina. Parte hartzeko eskabidea

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA) PARTE HARTZEKO ESKABIDEA. TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA.

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:
.....; egoitza soziala:
.....;
PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:
.....) gisa (adierazi ordezkartza-
ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- I. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kontratatzeko laguntzen proiektuak arautzen dituzten oinarri berrietako edukiaren berri izan du.
- II. Ordezkatzen duen erakundeak oinarriek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu, eta horietan adierazitako betebeharrak guztiak beren-beregi onartzen ditu.
- III. Oinarri horiekin bat egiteko eskaera egiten du, honako ezaugarri hauek dituen kontratazioa diruz laguntzeko:

– Lanpostua (1) :

– Kontratu mota:

– Hasiera-data:

– Kontratuaren iraupena:.....

– Jarduera-sektorea:

(1) Adierazitako lanpostuak bat etorri behar du lan-kontratuan adierazitako lanpostuarekin.

I. eranskinarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzen deialdian (2017ko uztailaren 28ko EHAA) aurkezturiko kontratazioek enplegu garbia sortzen dutela dioen erantzukizunpeko adierazpena. Txorierri-Erandio eskualdeko enplegu-plana.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua

II. Eranskina – Enplegu garbia sortzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ADIERAZTEN DUENA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZEN DEIALDIAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA) AURKEZTURIKO KONTRATAZIOEK ENPLEGU GARBIA SORTZEN DUTELA. TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANA.

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:
.....; egoitza soziala:
.....;
PK:; udalerria:; telefono-zenbakia:
.....) gisa (adierazi ordezkartza-
ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioak enplegu garbia sortuko du diruz laguntzen diren kontratuak izango dituzten pertsonak sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egon den batez besteko plantilla osoaren gainean.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



III. Eranskina – Justifikazio aurkezteko eredia

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIRAKO (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA) DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA. TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA.

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:
.....; egoitza soziala:
.....;
PK:; udalerria:; telefono-zenbakia:
.....) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

Honako agiri hauek aurkeztu ditu:

- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diruz lagunduko den kontratuaren kopia.
- Nominak, kotizazioen likidazio-agiria (garai bateko TC1) eta langileen izen-zerrenda (garai bateko TC2), jasotako laguntza justifikatzeko.
- Zinpeko deklarazioa, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (II. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak gehiegizko finantzaziorik ez duela egiaztatzen duen agiria (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den plantillaren batezbestekoaren egiaztagiria, GSDNk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantillaren egiaztagiria, GSDNk emandakoa.
- Egindako kontratazioaren eta gastuaren erantzukizunpeko adierazpenaren eredia (VI. eranskina).
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VII. eranskina).
- Memoria, txantilo ofizialaren arabera egina.
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



IV. Eranskina – Ahaidetasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren eredia

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ADIERAZTEN DUENA EZ DAGOELA AHAIDETASUNIK LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA) AURKEZTUATKO KONTRATAZIOETAN. TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANA.

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:
.....; egoitza soziala:
.....;
PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:
.....) gisa (adierazi ordezkaritza-
ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioaren xede den pertsona ez da sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea, oinordekoa edo ahaidea, eta ez da, halaber, adierazitako beste pertsona horietako inor.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua

V. Eranskina – Gehiegizko finantzaketarik ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpenaren eredu

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ADIERAZTEN DUENA EZ DAGOELA GEHEGIZKO FINANTZAZIORIK LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ESPARRUAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA). TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA.

..... jaunak/andreak
(NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:
.....; egoitza soziala:
.....;
PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:
.....) gisa (adierazi ordezkartza-
ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Eskabidean adierazitako kontratazioari dagokionez, ez dago eta ez da egongo gehiegizko finantzaziorik edozein arrazoi dela eta. Bestalde, adierazpen honen xede diren alderdiekin lotutako edozein gorabehera beren-beregi eta idatziz adierazteko konpromisoa hartzen du.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VI. Eranskina - Egindako kontratazioaren eta gastuaren erantzukizun-adierazpenaren eredia

ERANTZUKIZUNPENKO ADIERAZPENA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ESPARRUAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA) EGINDAKO KONTRATAZIOARI ETA GASTUARI BURUZKOA. TXORRIERRO ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA.

Enpresa kontratatzailearen datuak		
Enpresa kontratatzailearen IFK	Izen soziala	Patronalaren zk.

Kontratatutako pertsonaren datuak		
NAN	Izena eta bi abizen	Jaiotze-data

Kontratazioaren datuak					
Kontratu mota	Hasiera-data	Amaiera-data	Kontratuaren iraupena guztira (hilabetetan)	Kontratatutako pertsonaren lanpostua	Lanaldi mota (%)

Diruz lagundutako kontratazioan egindako gastuak			
Soldaten kostua	Gizarte Segurantzaren kostuak	Kontratu-amaierako kalte-ordainen kostuak	Benetako kostua guztira

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VII. Eranskina – Hirugarrenen altaren fitxa

HIRUGARRENEN ALTAREN FITXA, BANKUKO KONTU-ZENBAKIAREN TITULARTASUNA EGIAZTATZEN DUENA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN ESPARRUAN (2017ko UZTAILAREN 28ko EHAA). TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA.

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora			
Izena eta deitura bi edo Sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social			
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
NAN - IFK / DNI - CIF		Telefonoa / Teléfono	Faxa / Fax
e-mail			
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura, / Firma de la parte acreedora o apoderada			

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias			
1	Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu , eta titularra goian adierazitakoa dela. Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.		
Zergaren sarrera edo itzulkata helbideratu nahi duzun finantza erakundea: / Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:			
IBAN kodea / Código IBAN			
E	S		
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Sinadura eta bankuearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria			
2	Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu , eta titularra goian adierazitakoa dela. Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.		
Zergaren sarrera edo itzulkata helbideratu nahi duzun finantza erakundea: / Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:			
IBAN kodea / Código IBAN			
E	S		
Herria / Población		Probintzia / Provincia	PK / CP
(lugar)	(año)	(mes)	(día)
n, 20 (e)ko k			
Sinadura eta bankuearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria			

Agiri hau alta edo aldazpenik dagoenetan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
NANren edo IFKaren fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
Bi kontu baino gehiago duen hartzekoduna izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas añadir otro impreso.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko diregula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipaturako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, hotsko helbide honetara jo dezakezu:

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstas por la Ley.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua